

## **OBLIGAZIOAK**

- 1. Obligazioen kontzeptua**
- 2. Obligazioen osagaiak**
  - a) **Obligazioaren lotura**
  - b) **Obligazioaren subjektuak**
  - c) **Obligazioaren edukia**
  - d) **Obligazioen kausa**
- 3. Obligazioen iturriak**
  - a) **Legezko obligazioak**
  - b) **Kontratuetatik eratorritako obligazioak**
    - a) **Kuasikontratuak**
    - d) **Delitu eta faltetatik eratorritako obligazioak**
    - e) **Zilegi ez diren egite edo ez-egiteak**
- 4. Obligazio motak**
  - a) **Obligazioen jatorriaren arabera**
  - b) **Zein legeriak arautzen dituenaren arabera**
  - c) **Obligazioen loturaren arabera**
  - d) **Parte hartzen duten aldearen arabera**
  - e) **Obligazioen objektuaren arabera**
  - f) **Obligazioen subjektuen arabera**

### **1. OBLIGAZIOEN KONTZEPTUA**

Obligazioa bi pertsonen edo pertsona gehiagoren arteko harreman juridikoa da. Lotura honen bidez, pertsona batek (zordun izenekoa) beste pertsona batentzat (hartzekodun izenekoa) bere burua jokabide zehatz bat betetzera behartzen du.

Obligazioez hitz egiterakoan betekizunaren ideia sortu arren, honek ez du ikuspuntu bat baino adierazten, pasiboa alegia. Obligazioa, beraz, bi alde edo egoeraren arteko lotura da: bata, ahalmen juridikoa edo hartzekodun egoera eta, bestea, eginbehar juridikoa edo zordun egoera.

Obligazioa, horrela, arestian aipatu dugunez, definitzen da zordun eta hartzekodunaren arteko harreman juridiko gisa.

Definiziotik eratortzen dira obligazio harremanaren alderdi biak, hots, aktiboa edo hartzekoduna eta pasiboa edo zorduna

a) Alde aktiboa: kredituak barneratzen dituen eskubideak eta ahalmenak nori eratziki behar zaizkion (hots, alderdi aktiboari edo hartzekodunari).

b) Alde pasiboa: obligazioa nork bete behar duen (alderdi pasiboak edo zordunak, alegia).

Kode Zibilaren 1088. artikulua dioenez obligazioen edukia zerbait eman, egin edo ez egitean datza. Hortaz, zordunak, egin beharrekoa gauzatu edo bete behar du: diru kopuru bat eman, gauza zehatz bat eman, jokabide zehatza (positiboa zein negatiboa) bete etab

## 2. OBLIGAZIOEN OSAGAIK

Lau dira obligazioen beharrezko osagaiak:

- a) Obligazioen lotura
- b) Obligazioen subjektuak
- c) Obligazioen edukia
- d) Obligazioen kausa

### a) Obligazioaren lotura

Arestian azpimarratu dugunez, obligazioa lotura juridikoa da. Lotura hori dela bide, zordunak jokabide zehatz bat bete behar du. Kontzeptu honen barnean bi ideia biltzen dira: alde batetik zorra eta bestetik erantzukizuna, gerta baitaiteke zordunak bere obligazioa ez betetzea. Kasu horietan legeak tresna berezi bat arautzen du, erantzukizuna alegia. Orokorrean, erantzukizunaren bidez, zordunaren ondasunak erabil daitezke, zorraren derrigorrezko ordainketa lortzeko. Erantzukizun horri buruz ari da KZren 1911. artikulua. Artikulu honen arabera, zordunak bere obligazioen betetzeaz erantzun behar du gaurko eta etorkizuneko ondasun guztiekin.

Obligazioen lotura, beraz, bi subjektu juridikoen arteko zubia edo harremana izango da, beronen baitan zorra eta, honi oposaturik, eginbeharreko hau betetzea eskatzeko eta galdatzeko hartzekodunaren eskubidea (hartzekoa) elkartzen baitira. Betetzea bere garaian eta era egokian egingo ez balitz, loturaren bigarren elementua azalduko litzateke, hots, erantzukizuna.

Erantzukizun kontzeptu hau dela eta, hartzekodunak ahalmena izango du zordunaren ondarearen aurka aritzeko, bai zor den eginbeharrekoa lortzeko eta baita, hau egokia ez balitz edota posible ez balitz, zorraren pareko ordainketa ekonomiko jasotzeko ere. Aukera hau KZren 1911. artikulua arabera, zordunak bere betebeharren betetzeaz erantzun behar du gaurko eta etorkizuneko ondasun guztiekin.

### b) Obligazioaren subjektuak

Obligazioak harreman bat behar du, eta hau ezin daiteke gauzatu nolabait erlazionaturik dauden pertsonarik gabe. Pertsona hauei obligazioaren subjektuak deitzen zaie eta honako hauek dira:

1. Subjektu aktiboa: obligazioa betearazteko eskubidea duen hartzekoduna.
2. Subjektu pasiboa: obligazioa betetzeko beharra duen zorduna.

Subjektu pasibo eta aktiboak pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke, eta

obligazioaren alderdi bakoitzetik subjektu bat edo gehiago egon daitezke. Salerosketa kontratuan, alderdiak dira eroslea eta saltzailea. Adibidez, pertsona bat baino gehiagok batera gauza erosten badio jabe bakar bati, alderdi eroslea (gauzaren hartzekodun eta prezioaren zordun dena) osatuko dute gauza eskuratzen duten pertsonak; alderdi saltzailea, aldiz, subjektu bakar batek eratuko du.

Subjektuak zehaztea: obligazio harreman baten subjektuak zehaztuak egon behar dira, zeintzuk diren jakin behar da. Zehazteko erak honako hauek dira:

- Harremanaren hasieratik ondo zehazturik egon behar dira.

- Alderdi bat zehaztu eta bestea zehaztu gabe egotea baina zehaztu izatera helduko dena obligazioan bertan jarritako oinarri batzuk kontuan hartuz, alegia, eramailea dokumentu baten titularra izatea.

- Hasiera batetik ondo zehaztuak egotea baina subjektuaren egoera eskualdatzen da harremanaren objektuarekin kontaktuan jartzen (adib. pertsona bat jabetza horizontalaren egoeran dagoen merkatal tokia edo pisu baten jabe egitean sortzen diren jabeakidearen obligazioak).

Labur bilduz, betebeharraren subjektuak zehaztuta egon daitezke hasiera-hasieratik, alegia, obligazioa eratzean; bestela, horien zehaztea geroko utz daiteke, obligazioa eraterakoan finkatzen badira subjektu horiek zehazteko irizpideak.

### **c) Obligazioaren edukia**

#### **1. Prestazioa**

KZren 1088. artikulua arabera "*Obligazio oro zerbait ematean, egitean edo ez egitean datza*". Ildo horretatik, zor den gauza edo ondasuna da obligazioaren objektua. Beste era batera esateko, hartzekodunak gauza edo zerbitzu zehatz bat lortu nahi du, zordunaren jokabide edo portaera zehatz baten bitartez, eta gauza edo zerbitzu hori da, hain zuzen ere, obligazioaren objektua.

Labur bilduz, zordunak bete behar duen jokabide hori, prestazioa da eta honako hauetan datza, KZren 1088. artikulua arabera:

- i) Zerbait ematea
- ii) Zerbait egitea
- iii) Zerbait ez egitea.

#### ***i) Zerbait emateko prestazioa***

Honelako obligazioa zordunaren jabetzapeko gauza zehatz bat ematekoan datza. Obligazio honek berez dakar gauza beste pertsona baten esku uztea, gauzaren edukitza lekuz aldatzea. Lekualdatze horrek bi helburu izan ditzake: gauza eskualdatzekoa (kasuko, salerosketa) edo gauza itzultzekoa (gordailua adibidez).

Emateko obligazioaren barne daude: gauza ematea gauza horrek dituen eranskin guztiekin. Bestalde gauza hartzeko eskubidea duen hartzekodunak zorduna behartu dezake gauza eman diezaion eta azkenik ez emateagatik izan dituen kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango hartzekodunak.

Gauza emateko betebeharra sortzen den unetik, hartzekodunak fruituak jasotzeko eskubidea du; baina gauzaren gaineko eskubiderik ez du eskuratzen gauza ematen ez zaion bitartean.

### ***ii) Zerbait egiteko prestazioa***

Zerbait egiteko obligazioetan, zerbitzu bat ematera zuzentzen da zordunaren jokabidea edo portaera. Orobat, edozein jarduera edo portaera izan daiteke obligazioaren objektu, bere betekizunak betetzen baditu, alegia: ahalezko edo posiblea, zilegia eta zehazteko modukoa izan behar da. Era berean ondarezkoa izan behar du, hots zordunarentzat ondare galera ekarri behar du eta hartzekodunarentzat, aldiz, ondare onura.

Egiteko obligazioan zordunaren berezitasun pertsonalak erabakigarriak izan badira hartzekodunarentzat, "intuitus personae" deiturikoa delako. Hori dela eta, inork ezin du hartzekoduna behartu gainontzeko baten eginbeharrekoa edo zerbitzua onartzera.

Zerbait egiteko obligazioek bi azpimultzo osa ditzake: bata, obligazioa emaitza zehatz bat lortzera zuzenduta dagoenean, eta bestea, jokabide edo portaera zehatz bat betetzearekin batera agortzen den obligazioa. Lehenengoa emaitzako betebeharra izango da eta bigarrena, aldiz, jarduerako betebeharra.

Jarduerako betebeharretan, zordunak jarduera hori bete baino ez du egin behar, baina ez du emaitzen gaineko eginbeharrik hartzen. Horrelakoen adibide moduan jar daitezke, besteak beste medikuarena, abokatuarena, lanbidez kirolari denarena eta, orokorrean lanbide intelektuala.

Emaitza betebeharretan, aldiz, zordunak emaitza zehatz bat lortu behar du hartzekodunarentzat; beraz, ez da kontuan hartuko horretarako zein jarduera egiten duen, ezta zordunak berak ala gainontzeko batek egiten duen jarduera hori. Honen adibide izan daitezke, garraiolariarena, eraikitzailearena eta abarrena.

### ***iii) Zerbait ez egiteko prestazioa***

Zordunak zerbait ez egiteko betebeharra baino ez du hartzen bere gain. Horren adibideak daitezke enkante zehatz batean parterik ez hartzeko ituna, enpresaioen artean lehiarik ez egiteko ituna, errentan emandako etxebizitzetan animaliak ez sartzeko ituna, edo beste toki batean lan ez egitekoa.

## **2. Obligazioaren edukiaren nahitaezko osagarriak**

Kode Zibilak kontratuei buruz dituen artikuluetatik erator daitezke. Beraz, obligazioen edukia "posible, zilegi, zehatz eta ondare kutsukoa" izango dela esan dezakegu.

1. Posiblea edo ahalezkoa izan behar du: inor ezin da behartua izan ezinezkoa den gauza bat egitera, bai fisikoki (esaterako, gizaki batek hegan egitea) edo juridikoki (adibidez, merkatutik kanpo dagoen gauza bat saltzea). Beraz, ezinezko portaera bat edukia duen obligaziorik ez da existituko. Zentzu honetan Kode Zibilaren 1272. artikulua honako hau agintzen du: "*Ezinezko gauza edo zerbitzuak ezin izango dira kontratuen objektu izan*".

2. Zilegia izan behar du: eginbeharrekoa ezin da joan zuzenbide edo ohitura onen

aurka. Hasieran obligazio bat betetzera bakoitzak bere burua behartzeko kontratuetako askatasuna dago; baina, zenbait mugen barnean, noski. Honela dio KZren 1255. artikulua: *"Kontratatzailleek nahi dituzten paktu, klausula eta baldintzak ezar ditzake, berauek legeen, moralaren eta ordenu publikoaren kontrakoak ez badira"*.

Artikulu honek, kontratu bat zilegi ez den kausa batean oinarritzen denean bidegabetzat jotzen du.

3. Zehaztua izan behar du: hartzekodun eta zordunaren interesengatik betebeharrekoa zehaztea komeni da. Bai obligazioa eratzen den momentuan edo geroago bete behar denean. KZren 1273. artikulua aldarrikatzen du: *"Kontratu ororen objektua bere generoari dagokionez zehaztua izan behar du. Kopuruaren zehaztugabetasuna ez da kontratuaren izatearentzat oztopo izango, beti ere kontratugileen arteko hitzarmen berri baten beharrik gabe, kopurua zehaztea posible bada"*.

4. Ondare kutsukoa izan behar du: hau da, dirutan neurgarria edo baliagarria izan behar du. Era honetan ez bada betetzen, beti jo daiteke zordunaren ondarrera kalte-ordainak dirutan jasotzeko. Lehen aipatu dugun Kode Zibilaren 1911. artikuluan, azken finean, obligazio ororen ondare kutsu edo kutsu ekonomikoa azaltzen da. Obligazioa betetzen ez bada, sorturiko erantzukizuna zordunaren ondareaz beteko baita.

#### **d) Obligazioen kausa**

Kontzeptu hau guztiz teorikoa da. Doktrinak gai honetaz asko idatzi du eta teoria asko asmatu ere bai. Kode Zibilera joko dugu oinarritzko definizioaren bila. Kode Zibilaren 1.261. artikulua kontratuen baldintzak ezartzen ditu. Kontratua existitzeko ezarritako obligazioaren kausa beharrezkoa da. Puntu honetatik abiatuz, KZren 1.274. artikulura joko dugu. Artikulu honetan eta hurrengoetan kontratuen kausa aztertzen baita. Aipatu artikulua hitzez hitz honela dio:

Kostubidezko kontratuetan, alderdi kontratu egile bakoitzarentzat beste alderdiak jasoko duen gauza edo zerbitzuak ematea edo hitz ematea izango da kausa; ordainbidezko kontratuetan, ordaintzen den zerbitzu edo onura, eta dohaintzako kontratuetan, ongilearen eskuzabaltasuna.

Beraz, ez dago dudarik obligazioaren kausa ondarezko elementu baten gaineko harremana dela.

### **3. OBLIGAZIOEN ITURRIAK.**

Obligazioen iturritzat har daitezke obligazioak sortarazten dituen egitateak, hartzekoduna eta zorduna lotuz. Ildo berean, zeharo adierazgarria da Kode Zibilaren 1089. artikulua: *"Obligazioak sortzen dira legetik, kontratuetatik eta kuasikontratuetatik, zilegi ez diren egite zein ez-egiteetatik, bai eta edozein motatako erru edo zabarkeriaz burututako egite eta ez-egiteetatik ere."*

Beraz, obligazioen iturri anitz aurkitzen dugu artikulu honetan:

### **a) Legezko obligazioak**

Legez sorturiko obligazioak, ez dira aurrez existitzen; legeak zehatz-mehatz adierazten dituenak soil-soilik daude KZren 1090. artikulua arabera: *"Legeek ezarritako obligazioak ez dira uste izaten. Bete beharrekoak dira Kode honetan edo lege berezietan espresuki zehazturikoak soilik, eta ezarri dituen legearen arauak eraenduko dituzte haiek; eta legeak aurreikusi ez duen guztian, liburu honen xedapenek eraenduko dute"*.

Adibide gisa, zergak ordaintzeko legezko obligazioa, edo senidetasunetik eta ezkontzatik eratorritako obligazioak aipa ditzakegu.

Lege hitza ez da ulertu behar esangura hertsian, hots, Botere Legegilearen organoek emandako legezko xedapen edo arau idatzi gisa; alderantziz, edozein motatako arau juridikoak sartzen dira adierazpide horren barruan.

### **b) Kontratuetik eratorritako obligazioak**

Kontratua da borondatezko obligazioen iturri nagusia. Kontratuz sorturiko obligazioei buruz, KZren 1091. artikulua honela arautzen du: *"Kontratuetik sorturiko obligazioek kontratuaren egileen artean lege indarra dute eta kontratuaren ezarritakoaren arabera bete behar dira"*. Kontratua bi subjektu edo gehiagoren arteko borondate hitzarmena da, ondare edukia du eta obligazioak erakartzen ditu (KZren 1254. art. eta ondorengoak).

### **c) Kuasikontratuak**

Kuasikontratuak dira, hitzarmenik gabe, borondatez hartzen diren obligazioen iturriak. Figura juridiko hau antzinako hondar bezala gelditu da Kode Zibilean, beste estatutako kode zibiletan desagertu bada ere. Ia erabilpenik gabeko instituzio juridikoa da. Dena den obligazioen iturriak dira.

Kuasikontratuak borondatezko ekintza zilegiak dira; espresuki onartu gabekoak. Hala ere, egitate hauetatik zenbait obligazio eratortzen dira. Esaterako, zor ez den diru kopuru bat kobratuz gero, kontraturik egon ez arren, egitate honetatik egiazko hartzekodunarentzat diru kopuru hori bueltatzeko obligazioa sortzen da.

Kode Zibilean bi kasu agertzen dira soilik:

- a) Inoren negozioak kudeatzea, kudeatzaileak horretarako mandaturik ez duenean (KZren 1888.etik 1894.era arteko art.ak).
- b) Zor ez dena hartzea (KZren 1895.etik 1901.era arteko art.ak).

### **d) Zilegi ez diren egite nahiz egite ezagatik eratorritako obligazioak (delitu eta faltak)**

Zigor Kodean arautzen dira. Obligazio horien oinarritzko helburua da ondoko kalte-galerak ordaintzea: delitu edo faltatzat har daitezkeen jokabide aktiboek eta pasiboek eratorritako kalte-galerak ordaintzea, alegia.

Kode Zibilaren artikuluekin jarraituz, 1092. artikulua delituetik edo faltetatik sorturiko obligazioei buruz honako hau agintzen du: *"Delitu edo faltetatik sorturiko"*

*obligazio zibilak Zigor Kodearen manuen arabera arautuko dira".*

**e) Errua edo arduragabekeria izanik burututako egite nahiz ez-egite kaltegarriak**

Gerta daiteke erru edo arduragabekeriaz subjektu aktiboak egite edo ez-egite kaltegarriak egitea, eta horiek delitu edo falta ez izatea. Kode Zibilak 1902. artikuluan eta ondorengoetan arautzen ditu obligazio hauek. KZren 1902. artikulua honela dio: "*Errua edo zabarkeriaz egindako egite edo ez-egiteagatik beste bati kalte egiten dionak eragindako kaltea konpondu beharko du*". Egindako kaltea konpontzeko obligazio honi erantzukizun zibila, edo kontratuz kanpoko erantzukizuna deitzen diogu.

**4. OBLIGAZIO MOTAK**

Egin litezkeen hainbat sailkapenen artean banaka batzuk baino ez ditugu aipatuko:

**a) Obligazioen jatorriaren arabera**

- a) Legezkoak.
- b) Kontratuzkoak.
- c) Kuasikontratuzkoak.
- d) Delitu edo faltetatik eratorrikoak
- e) Errua edo arduragabekeriaz burututako egite zein ez-egite kaltegarriak

**b) Zein legeriak arautzen dituenaren arabera**

- a) Obligazio zibilak: legeria zibilak arautzen dituenak
- b) Merkataritzako obligazioak: merkataritzaren legeriak arautuak.

**c) Obligazioen loturaren arabera**

a) *Obligazio soilak*: beste kanpoko inguruabar ez dagoenean beraien eragina mugatzeko, baldintza edo eperik, alegia. Portaera soil eta konkretu bat eskatzen da.

b) *Obligazio baldintzatuak*: beren betetzea, kanpoko gertaera bati baldintzaturik daude. Etorkizun gertaera zehaztugabe baten menpean daude, edo gertatutako zerbait baina alderdientzat ezezaguna dena.

- Baldintza etengarria izanez gero, obligazioaren eraginak ez dira gertatzen baldintza gauzatzen ez den bitartean (adib. "6.000 euro emango dizkizut kurtsoa gainditzea lortzen baduzu"). Dirua emateko obligazioa airean geratzen da kurtsoa gainditzen duen edo ez jakin arte.

- Baldintza suntsiarazlea izanez gero, obligazioaren eraginak ematen dira baina bertan jarritakoa bete arte (adib. "Nire etxea utziko dizut baina anaia badator, bueltatu egin behar didazu"). Gertaera hori suertatzen bada amaitzen da obligazioaren eragina.

c) *Eperako obligazioak*: hauek eraginak izango dituzte bertan agertzen den epean

soilik. Data trinko bat izan daiteke edo etorkizunean ziur gertatuko den gertaera bat izan daiteke (adib. "Nire jabetzako lurra erabil dezakezu aita bizi den bitartean").

#### **d) Parte hartzen duten aldeen arabera**

Zein aldetan dauden obligazioak kontuan hartuz:

- a) *Alde bakarrekoak*: bi alderdietako bat dago behartua.
- b) *Alde bietakoak*: alde biak elkar obligatuak direnean

#### **e) Obligazioen objektuaren arabera**

- a) *Zehatzak*: objektua zehaztua dago.
- b) *Generikoak*: objektua genero batekoa izategatik zehazten da soilik.

#### **f) Obligazioen subjektuen arabera**

- a) *Banakako obligazioak*: subjektua, pertsona bat bakarra da.
- b) *Pertsonen aniztasuna*: obligazioaren subjektua, pertsona bat baino gehiagok osatzen dute.

Subjektuen aniztasuna antolatzeko moduak:

1. Mankomunitatea: KZren 1138 art.aren arabera, obligazioaren testutik besterik ondorioztatzen ez bada, kreditua edo zorra hartzekodun edo zordun beste zatitan banaturik dagoela uste izango da; Hor esandakoaren ondorioz, hartzekodun bakoitza kredituaren zati baten hartzekoduna da eta, zordun bakoitza zorraren zati baten zordun izango da. Horrela, zati baten hartzekodunak, zordunari eska diezaioke zati hori bakarrik ordaintzea; zati baten zorduna, berriz, zorraren zati hori bakarrik ordaintzera behartuz izan daiteke .
2. Solidaritatea: hartzekodun bakoitzak obligazio osoa kobratzeko eskubidea edo zordun bakoitzak obligazio osoa ordaintzeko betebeharra duenean solidarioak direla diogu. Jakina, dena kobratu duen hartzekodunak gainontzeko hartzekodunei kitapena egin beharko die eta dena ordaindu duen zordunak gainontzeko zordun bakoitzari ere kontua luzatuko dio. KZren 1137. artikulua espresuki adierazten duenez, obligazio batean hartzekodun bat baino gehiago edo zordun bat baino gehiago aldi berean izanez gero, solidaritatea egongo da "*obligazioak espresuki hori adierazten duenean bakarrik*" beraz, salbuespena solidario izatea izango da. Hots, obligazioa zehaztean ezer aipatzen ez bada, obligazioaren mankomunitatearen aldeko presuntzioa ezartzen baitu KZren 1138. artikulua.